


Gizarte zerbitzuetako gastua %12 gehitu zen 2006. urtean

Finantzaketa publikoa %15 gehitu zen, hau da, mila milioi eurotik gorakoa izan zen

EUSTATen datuen arabera Euskal Autonomia Erkidegoan, 2006. urtean, 1.457 milioi euroko gastua egin zen gizarte zerbitzuetan, hau da, aurreko urtean baino %12 gehiago eta EAEko BPGaren %2,4 izanik. Biztanle bakoitzeko batez besteko gastua 684 eurokoa izan zen, eta horietako 486 funts publikoetatik hartu ziren.

Lurraldeka, Araban %11 igo zen gastua, Bizkaian %13 eta Gipuzkoan %12. Biztanleko, Araban eman zen gasturik handiena: biztanle bakoitzeko 774 euro. Bizkaian, aldiz, gastua 672 eurokoa izan zen eta Gipuzkoan 666 eurokoa.

Grafikoa: Gizarte zerbitzuetan egindako gastuaren bilakaera biztanle bakoitzeko



Iturria: EUSTAT

Herri administrazioek 1.036 milioi euroko ekarpena egin zuten (gastuaren %71), eta sektore pribatuak gainerako %29 eman zuen. Gastatu zen lau eurotatik bat (360 milioi euro) erabiltzaileen kuoten eta bestelako salmenten bidez finantzatu zen. Guztirako horretatik, egoitzetan dauden adinekoek 160 milioi euroko ekarpena egin zuten; hau da, zentro horietako gastuaren %46 horiena izan zen.

Sektore honetan %2,4 landuneri eman zien zuzenean lana

Gizarte zerbitzuetan, oro har, 22.985 pertsonari eman zitzaion lana zuzenean (okupatuen %2,4ari) eta horien %69 emakumeak izan ziren. Baina kopuru hori handiagoa da zuzeneko arretan azpikontratatzaren diren langileak kontuan hartuz gero; lanaldi osoan 4.662 pertsona azpikontratatu ziren. Azpikontrataturako langile horien erdiak etxez etxeko laguntza zerbitzuan lan egin zuen. 2006. urtean 18.655 pertsonak lan egin zuten gizarte zerbitzuetan, eskuzabaltasunez; guztira lanaldi osoan 1.724 pertsona gehiago izan zen.

1. taula: Magnitude nagusien bilakaera

	2005	2006	Δ % 06/05
Gastua (mila euro)	1.297.642	1.457.289	12,3
- Gastu arruntak	959.083	1.082.718	12,9
- Familietarako transferentziak	274.566	308.074	12,2
- Kapital-gastuak	63.993	66.496	3,9
Gastua/Biztanleko (euro)	606,1	684,4	12,9
Gastua/BPG (%)	2,3	2,4	-
Finantzaketa			
- Finantzaketa publikoa	903.157	1.035.909	14,7
- Finantzaketa pribatua	394.485	421.380	6,8
Giza baliabideak			
Langileak guztira	40.616	41.640	2,5
- Bertako langileak	21.941	22.985	4,8
- Borondatezkoak	18.675	18.655	-0,1
Material-baliabideak			
- Izakunde-kop.	1.318	1.320	0,2
- Zentro-kop.	2.544	2.632	3,5
- Egoitza-kop.	734	772	5,2
- Egoitza-plazak	20.212	22.143	9,6

Iturria: EUSTAT

Oro har biztanle guztientzat eta adinekoekin espezializatuta dauden zentroetarako gizarte zerbitzuek izan zuten baliabide gehiago; gastuaren %68 hartu zuten bi esparru horiek.

Oro har biztanle guztientzako baliabideen artean, kopuru eta bilakaera aldetik, familiei egindako transferentziak nabarmendu behar dira eta, horien artean, hauek: Oinarrizko Errentako (OE) programak, 158 milioi euroekin (+%9) eta Gizarte Larrialdietarako Laguntzak (GLL), 39 milioi euroekin (+%15).

Gizarte zerbitzu espezializatuetan 65 urteko eta gehiagoko %9ari eman zitzaion arreta

Adinekoentzako gizarte zerbitzuetan egoitza zerbitzuei, eguneko asistentzia-zentroei eta etxez etxeko laguntza zerbitzuei ematen zaie arreta gehien.

Egoitzetan 16.809 plaza izan ziren; beraz, 65 urteko eta hortik gorako adineko 100 pertsonatik 4k plaza izan zuten. Azken urteetako joerari eutsiz, egoitzetako plaza kopurua gehitu egin zen: 1.250 gehiago izan ziren (+%8). Egoitzetako plazen %32 zentro publikoetan eskaini zen.

Eguneko asistentzia-zentroetan 3.204 plaza eskaini ziren; eta horietatik erdia baino gehiago foru erakundeekin hitzartutakoak izan ziren.

Etkez etxeko laguntza zerbitzuan 18.935 adinekori eman zitzairen arreta etxean bertan (100 pertsonatik 5ek 65 urte eta gehiago zuten); izan ere, etkez etxeko laguntza jasotzen duten erabiltzaileen %90 talde horren barruan sartzen da. 2005. urtearen aldean, erabiltzaile kopurua %6 gehitu da. Zerbitzu honek 69,9 milioi euroko gastua izan zuen (aurreko urtean baino %12 gehiago); beraz, urtean, batez beste, erabiltzaile bakoitzeko 3.312 euroko gastua egin zen eta gastu gehiena (%90) sektore publikoak finantzatu zuen.

2. taula: gastuaren bilakaera eta banaketa, biztanleen arabera

	2005	2006	Δ% 06/05
Gastua (mila euro uneko)	1.297.642	1.457.289	12,3
Biztanleria oro har	474.183	557.930	17,7
- Familietarako transferentziak	271.013	304.799	12,5
Haur-Gazteak	41.427	42.494	2,6
- Egoitzak	30.328	30.322	0,0
Zaharrak	391.759	438.188	11,9
- Egoitzak	338.724	377.813	11,5
Ezgaituak	317.092	339.511	7,1
- Egoitzak	56.351	53.815	-4,5
- Lanbide-zentroak eta EZB (1)	202.545	219.391	8,3
Emakumeak	8.782	9.941	13,2
Zokoratuak	64.398	69.225	7,5

(1) Enplegu-zentro bereziak

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiago:

Euskal Estatistika Erakundea

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helb. elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Maite Ugarte

Tel.: +34-945-01 75 47 Faxe: +34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/spanish/indice.asp